

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA****OGASUN ZUZENDARITZA****Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Bereziaren administrazio egintzen jakinarazpena**

Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jakinarazpena egitea ezinezkoa izan denez, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 108. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta aipatutako artikulua eskatzen dituen jakinarazteko ahaleginak, gutxienez, egin ondoren, iragarki honen bidez ondoren zerrendatzen diren zergadunei edo beren ordezkariari dei egiten zaie agertu daitezten eta ondoko zerrendan adierazten diren prozeduren ondoriozko administrazio egintzen jakinarazpena jaso dezaten.

Interesdunek edo haien ordezkariak gehienez 15 egun izango dituzte bertaratzeko, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzako Zuzeneko Zergen Zerbitzura jo behar dute (Samaniego kalea, 14. Vitoria-Gasteiz), astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era, zerbitzu horrek izapidetutako prozeduretan egiteke dauden jakinarazpenak egiteko.

Adierazitako epea igarota, interesduna edo haren ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 20a

*Zeharkako Zergen Zerbitzuaren burua*  
**IGNACIO NANCLARES REIZABAL**

IFZ	PROZEDURA
16277857K	Jakinarazpena
72718547E	Jakinarazpena